



ARMENIA

1.700 urtetan kristau

Azken aste hauetan sarritan agertu dira hedabide handietan (kazeta, telebista eta irratietan) Armeniako albisteak, hango herritarrek beren kristautasun ofizialaren 1.700 urteak ospatzen ari baitira. Armenia da halako ofizialtasuna izan duen lehenengo herria.

Ospakizun haietan parte hartzeko parada izan dugu, eta *Arantzazu* aldizkariko irakurleei hango berri eman nahi genieke, laburki izan arren.

Lurrez eta bizilagunez Euskal Herriaren tamaina beretsuko herria da Armenia, Kaukason jarria eta hara bildua batez ere, baina geografia askoz zabalagoa izan duena, Aro Garaikideko lehen genozidio handiak lurra eta gizon-emakumeak lapurtu zizkion arte (1915).

ARMENIA: ELIZA APOSTOLUTARRA

Armeniarrak aurtan gogorarazten digutenez, 2001eko urte honetan betetzen dira hamazazpi mende beren herria ofizialki kristautu zenetik, hau da, Tiridate III.a Erregeak kristautasuna bere herriaren erlijio ofizialtzak ezagutu zuenetik (301ean, tradizioak dioenez). Kristautze horren gidaria San Gregorio Argiztatzailea izan zen.

Erabaki politiko-erlijioso hark ondorio handiko emaitza historikoak ekarri zituen gero, erlijio-bizitzan ez ezik biziera politiko, nazional eta kulturalean. Harez gero, arme-

niarren herriak bere fedezko bizitza, identitate-nortasuna eta nazio-batasuna Eliza Apostoluar Armeniarrarekin segurtatu ditu batik bat, gaur egunak arte.

Eliza Kristauen artean izaera propioa du Eliza honek, eta historia teologiko eta kultural handikoa izan da, koptoenak Egipton edo siriarrenak Ekialde Hurbilean bezala –eta areago esango nuke–.

Eliza beregaina da guztiz Eliza Armeniarra, Erevan Hiriburutik gertu dagoen Etxmiatzin-en bere egoitza duen *Katolikos*-a Buru duela. Eliza Ortodoxoarekin, beste Ekialdearrekin eta Katolikoarekin batera, tradizio apostoluarrean txertaturik ikusi du bere burua beti.

Mendeak zehar nahikoa maiz isolatuta bizi behar izan duelako, Erakundeak, Liturgia eta Teologia bere gisara garatu ditu Eliza Armeniarrak. Honek bere kristau-jatorburua Bartolome eta Tadeo apostoluengan ikusi izan du, eta lehen eraketa liturgikoa Eliza siriarrean inspiratua izango luke; baina, laster –V. mendetik aurrera–, guztiz itxuraberritu zen Eliza Armeniarrak.

Inguruko herri eta inperioek bestelako Eliza edo erlijioak zituzten bitartean (Perstiak bere mazdeismoa, Bizantziok Ortodoxia, Bagdad-ek Islama), armeniarrak Eliza nazional honetan aurkitu zituzten fedea eta etika, batetik eta bestetik zetozen erasoei aurre egiteko.

Armeniarren historian, Herriaren eta Eliza Apostolutarraren arteko ezkontza banaezina izan dela esan dezakegu, hain izan da, izan ere, estua bien arteko elkarbizitza, une on eta zailtan. Mendeurren honetako ospakizunetan espreski azpimarratu da izaera historiko hori, maila ofiziale-tan bezala herri-herrian ere.

Gaur egun, beharbada, Eliza Apostolutar Armeniarra da -beste Eliza Kristauen artean- Erromatik hurbilen dagoen Eliza. Horren lekuko dira azken bi *Katolikos*-ek Erromara egindako ikustaldiak, Aita Santuarekin batera landutako agiri teologiko-historikoa eta Aita Santuaren bisitaldi honetan ikusi ahal izan ditugun hurbiltzeak.

Eliza Armeniarra Genevako Kontseilu Ekumenikoaren barruan eragile bizkorra izan da azken hamarkadetan. Jarrera ekumeniko horren emaitzen artean eman daiteke, adibidez, Joan Paulo II.aren iraileko bidaia.

ELIZATIK, NAZIOAREN KULTURA ERE

Armeniako kristautasunaren lehen mendea betetzera zihoalarik, 405aren inguruan Mesrop Maxtotz mojeak asmakari paregabe bat jarri zion eskueran bere herriari: alfabetoa (moje honek berak sortuko zuen georgieraren alfabetoa ere). Handik hona, armeniarrek beren hizkuntzan berariazko alfabeto hori dute idazteko.

Horrela, bere independentzia politikoa galtzera zihoan unean, "Elizak eman zion Armeniari alfabetoaren tresna berdingabe hau, gainera zetozkion inperioen artean kultur independentzia zaintzeko" (C. Mouradian).

Horren ondorioz, Eliza Apostolutarraren Liturgian grekoa eta siriera albora utzi eta hizkuntza nazionala nagusitu zen berehala; Administrazioan ere, iraniera eta arameera baztertu, eta armeniera ezarri zen; kulturean, berriz, literatura kristaua eta unibertsala armenierara itzuli ziren, obra originalak ere idazten ziren bitartean.



XVII. mendeurrenaren ospakizunen atarian egindako festa

Ondoren, kultura nazionala Bibliari eta Elizaren historia eta erakundeari hertsiki atxikia ageri zaigu; ez da batere erratua *Le Monde de la Bible* aldizkari frantsesak aurtengo abuztuko ale bereziari eman dion izenburua: "Armenia: Bibliaren oroimena", Bibliaren itzulpen-ingudearen gain moldatu baitzen kultura nazional idatzirako burdina landua, mendedarako balioko zuena (V. mendean). Liturgia siriar, literatura greko, idazlan judu-bibliko eta Eliz Gurasoen idazkien harrobitik hartu zituen lehen langaiak Eliza Armeniarrak baina dena bere hizkuntza armeniarrean emanaz. Hori izan zen Armeniaren lehen kultur geruza idatzia.

Gaur eguneko kultura nazionalak bi zutabe nagusi ditu, armenieraz: Elizaren armeniera zaharreko tradizioa, V. mendetik datorrena (*grabar* deitua) eta XVIII. mendetik honakoan garatu den kultura


idatzi sekularra (Aro Moderno eta Garaikideko herri-hizkeraren gain batu eta garatua).


Hortaz, herri jakin baten erlijiotasun kristaua segurtatzeaz gain, Eliza Apostolutar Armeniarrak bere herriaren nortasun landua segurtatu du, unean uneko erronka historikoei aurre eginez eta kulturarako sormen azkarra erakutsiz.

ETA ETORKIZUNEAN ZER?

Gaurko armeniarrak zazpi bat milioi dira munduan: hiru milioi eskas Armeniako Estatu independentean, eta gainerakoak, Diaspora zabal batean. Armenia Handia deitua (Zilizia eta Anatoliatik Kaukasora hedatzen zen hura) Estatu turkiarrak egindako genozidioan itoarazi zuten (1915-1916), baina orain Estatu burujabea du herri armeniarrak (1991), eta horren atzean, Diaspora indartsua munduan.

Erevaneko
Katedral berria





Hala ere, hipoteka larriak ditu gaur Armeniak, bere Estatu eta Elizan. Hasteko, handia da Sobiet Batasunean bizi izandako 70 urteek utzitako zama (gizartean, ekonomian, ohituretan...). Eta inguru geopolitiko arazotsua du: hegoaldean Turkia, mendebaldean Azerbaijan, hego-ekialdean Iran, iparraldean Georgia, erdi-lagun erdi-etsai, eta itsasorako irteerarik gabe...

Horrekin batera, independentziaren ondoren bost urteko gerra izan du Azerbaijan-ekin, Karabaj Garaiko armeniarrek defendatu eta lurraldea segurtatzeko; oraindik, horren bakezkoak egin gabe daude nazioartean, eta, ondorioz, Armeniako Errepublikak gerra-ekonomia batean bizi da, bere garapenerako beharko lituzkeenak aurrekontu militarretan emanez... Ez da egoera samurra.

Eliza Apostolutarrak bestelako arazoak ditu: sobiet-ondoko aro honetan, herritarrek gogoz aitortzen diote Elizari beti eta Sobiet-Batasunaren garaian izandako Nazioarekiko leialtasuna; baina herriaren kristau-katekesia egiteko dago, urtetan eta urtetan ateismo ofiziala nagusi izan ondoren. Badirudi Elizako egitura pastoral modernoak eraikitzeke daudela neurri handi batean: eskolak, parrokiak, katekesi sistemak, etab.

Egia esan, egiten ari diren lanak izan dezake, agian, gure gizarte sekularturako ere interesik. Eredu argigarria iruditu zitzaidan, adibidez, Erevan-go Estatu-Unibertsitateko Teologi Fakultatea: garai bateko "Ateismo-Katedra" Teologi Fakultate bihurtu dute, eta aurtan 300 gazte ari dira han lau urteko Teologi ikastaroa egiten (apaizgaien heziketarako Elizaren Seminarioak aparte beren lana egiten duten bitartean). Erronka jakin bati erantzun behar dio sei urte bakarrik

dituen Fakultate gazte horrek: Nola jantzi eta hezi kristauen fedea eta herritarren erlijiotasuna, gizarte post-sobietar eta hala ere sinestun batean?

Eliz zeregin eta bizimodurako bokazioak erruz datoz Seminarioetara. Gizartean prestigioa duen Erakundea da Eliza, oraindik ahula ageri den Errepublikaren ondoan. Armeniako Estatuaren eta Diasporaren arteko (hau da, munduko komunitate armeniar osoan) guztien lokarria da Eliza Apostolutarra, nonahi dituen elizengatik eta bere baitan duen erakunde-batasunagatik.

Ospatzen den Mendeurrenak indar handiak bildu ditu Elizaren ingurura (ikusitako jaialdiak bezala, Erevan-go Katedral berri eta ederra da horren adierazgarri), eta egokiera historiko aparta bizi du Eliza Kristau honek une honetan, bere herriaren aurrean ez ezik beste Eliza Kristauenean ere eta, oro har, modernitateak dituen eskei erantzuten ahalegintzeko.

Aurtengo ospakizunek irudi-berritu egin dute Eliza Apostolikoaren aurpegia (luzaz prestatutako Aita Santuaren bisitak emaitza onak eman ditu); historiako hainbat egokieratan bezalatsu, Turkia eta musulmanen mehatxua bizirik dago oraindik eta armeniarrek oso minbera dute genozidioaren oroitzapena (1.500.000 hildako), baina Mendeurreneko emaitzetako bat izanen da, zalantzarik gabe, munduak Armeniaz duen ezaupidea hobetzea. Hori ere baliozko segurtasun-tresna politikoa da, noski.

Egokiera honetan, etorkizunik onena opa diegu miresten dugun herri txiki, iraunkor eta emankor honi, eta herritasun hori hain zuzen bizi izan duen Eliza Apostolutarrari.

JOSEBA INTXAUSTI